

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko 87 etxebizitza Erripagainan jabetzan esleitzeko beste prozesu bat zabaldu du

Residencial Ori sustatzaileak eskainita, logela bat eta lau arteko etxebizitzak dira

Lunes, 01 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak babestutako 87 etxebizitza eskuratzeko esleipen-epea zabaldu du gaur; horrenbestez, beste esleipen-prozedura bati hasiera ematen zaio eskatzaileen eroldaren bitartez.

Gaurtik aurrera, ekainak 1, eta hilaren 16ra arte, babes ofizialeko laurogeita zazpi etxebizitzaren esleipenerako epea (erosteko araubidean) zabalik izango da.

Sustapen horretan parte hartzeko ezinbestekoa izango da aurrez [babeztutako etxebizitzaren errolda bakar](#)rean erregistratuta egotea.

Nafarroako Gobernuak babestutako etxebizitzaren eskatzaileen zerrendan ekainaren 1aren aurretik izena emandako pertsona guztiek 87 etxebizitza horietakoren bat eskuratzeko aukera izango dute martxoaren 16a bitarte.

Eskaintako etxebizitzak erosteko araubidean dauden babes ofizialeko etxebizitzak dira eta Erripagainan daude (Iruñeko udalerria).

Residencial Ori S.L. sustapenari dagozkio. Logela 1, 2, 3 eta 4ko etxebizitzak daude, 38,26 metro koadro eta 110,56 metro koadro arteko azalerekin. Haietako gehienek (55) hiru logela dituzte, eta guztiek garajea eta trastelekua dute.

Etxebizitzen ezaugarriak ondorengo [estekan](#) kontsulta daiteke zehaztasun handiagoarekin.

Baremoa eta eskatzaileek adierazitako lehentasunak aplikatuzetik ondorioztatutako esleipendunen behin-behineko zerrenda ekainaren 18an jakingo dela aurreikusten da, etxebizitzaren gaikako atarian eta Nasuvinsaren iragarki-taulan (San Jorge 8, behea). Une horretan, 10 eguneko epea zabalduko da alegazioak egiteko eta, haren ondoren, behin betiko zerrenda onetsiko da.